



C. ORDENAZIO PLANOAK



Alzado Calle Infanta Cristina

Aqto: César Azcarate Gómez

D.E.: Xabier Gonzalo

Cliente: Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA ERTZAINZA DE ONDARRETA

Nº E.: 20741


Fecha: 04/2019

Escala: 1:500

Nº Plano: PO-01

Plano: PLANO ORDENACIÓN PLANTA BAJA. ALINEACIONES Y RASANTES

IDOM



Aqto: César Azcarate Gómez
D.E.: Xabier Gonzalo


Ciente: Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA
DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA
ERTZAINZA DE ONDARRETA

Nº E.: 20741
Fecha: 04/2019
Escala: 1:500

Nº Plano: PO-02
Plano: PLANO ORDENACIÓN
PLANTA TIPO. ALINEACIONES Y RASANTES

IDOM



Aqto: César Azcarate Gómez
D.E.: Xabier Gonzalo


Ciente: Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA
DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA
ERTZANTZA DE ONDARRETA


Nº E.: 20741
Fecha: 04/2019
Escala: 1:500

Nº Plano: PO-03
Plano: PLANO ORDENACIÓN
PLANTA 5. ALINEACIONES Y RASANTES


IDOM




Sección 1



Sección 2



Sección 3



Aqto: César Azcarate Gómez D.E.: Xabier Gonzalo	Cliente: <i>Euskadi, auzolana, bien común</i> EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD	Encargo: PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA DE LA PARCELA DE LA COMISARÍA DE LA ERTZAINITZA DE ONDARRETA	Nº E.: 20741	Nº Plano: PO-04	IDOM
			Fecha: 04/2019	Plano: PLANO ORDENACIÓN PERFILES	
			Escala: 1:500		

D. ARAUDI URBANISTIKOA

1 ALDATURIKO ARAUDIA

Gaur egun indarrean dagoen araudiari eraikinaren forma zehazten duten parametroak aldatzen zaizkio, Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia kokatzen den lursailari dagokion gehienezko altuera aldatu ahal izateko, eta baita eraikigarritasun fisikoa ere, eraikitako sabai-azalera handitu ahal izateko.

HAPOk "AO.08 El Antiguo – Ondarreta" esparruko arau propioetan eraikigarritasun fisikoari buruzko informazioa 1.B. puntuaren *IV Erregimen Urbanistiko Xehatua* atalean agertzen da. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago 2012ko HAPBan HAPOarekiko eraikigarritasun fisikoaren areagotze bat jasotzen dela (lehenago aipatu den bezala).

Eraikinaren forma *IV Erregimen Urbanistiko Xehatua* atal bereko 1.C puntuan zehazten da.

Puntu horiek honako Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren proposamenaren arabera aldatu beharko dira:

- Lursailaren eraikigarritasun fisikoa: 2.663,42 m²(s)
- Eraikinaren forma: lerrokadura berriak (bai fatxadetarako eta bai hegaldun elementuentzako) lerrokadura eta sestrean planoetan (PO.01, PO.02 y PO.03) eta ebaketen (PO.04) planoetan argitzen dira eta eraikinaren eta bere inguruaren arteko erlazioa ere ikus daiteke bertan. Eraikinaren gehienezko altuerari buruz, urbanizazioko +0 kotarekiko 23,5 metrotan zehazten da, eta instalakuntzako elementuek 25 metrora heltzeko aukera izango dute (gaur egun eraikinean aurki daitekeen telekomunikazio antena ezezik). Eraikinak 6 solairu izango ditu gehienez (B+5).

E. MEMORIA ETA EKONOMIA NAHIZ FINANTZA BIDERAGARRITASUN

AZTERKETA

1 IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA ETA EKONOMIA NAHIZ FINANTZA BIDERAGARRITASUN AZTERKETA

Hiri-Antolamenduko Plan Berezi honen sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila da, eta aipaturiko lanak Aurrera eramateko aurrekontua da. Hortaz, beste administrazio edo gizabanakoetan ez du eraginik izango.

F. LABURPEN EXEKUTIBOA

1 MUGATZEA ETA IRISMENA

Aldaketaren esparruaren mugatzeari Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia aurkitzen den lursailari dagokia, PI.01 de “Kokapena” planoan adierazten den bezala.

2 ANTOLAKETA BERTAN BEHERA GERATZEKO ESPARRU ETA EPEA; ESKUARTZE URBANISTIKOKO EXEKUZIO PROZEDURAK

Lur eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 85. Artikuluaren arabera, eta Hiri-Antolamendu Plan Berezi honen esparrua hain mugatua denez, ez da inolako etenik aurreikusten.



César Aitor Azcárate Gómez

Arkitekto kolegiatua, EHAEO 1.527 zenb.

Idom Consulting, Engineering, Architecture

I ERANSKINA. INGURUMEN-EBALUZIO ESTRATEGIKO SINPLIFIKATUA



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA DONOSTIAN

ONDARRETAko ERTZAINZAren KOMISALDEGIaren lursaila

SINPLIFIKATUTAKO INGURUNE-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

EUSKO JAURLARITZA

AURKIBIDEA

Edukia

A.	INGURUNE-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA.....	5
1	SARRERA.....	6
1.1	SUSTATZAILEA ETA TALDE IDAZLEA.....	7
2	AURREKARIAK	8
3	PLAN BEREZIAREN HELBURUAK.....	9
4	PLAN BEREZIAREN GARRANTZIA ETA EDUKIA. PROPOSATUTAKO ALTERNATIBAK.....	10
4.1	LANDUTAKO ALTERNATIBAK.....	10
5	PLANAREN AURREIKUS DAITEKEEN GARAPENA	15
6	INGURUMENAREN EGOERAREN KARAKTERIZAZIOA PLANAREN GARAPENA BAINO LEHEN ERAGINA JASTAEN DUEN LURRALDE-EREMUAN	16
6.1	Klimatologia.....	16
6.2	Geologia e hidrogeologia.....	17
6.3	Hidrografia.....	17
6.4	Flora ETA LANDAREDIA. GIZARTEARENTZAKO INTERESDUN HABITATAK.....	17
6.5	Fauna	18
6.6	BABESTUTAKO NATUR-GUNEAK. KORRIDORE eKOoOgiKoAK.....	19
6.7	KALITATE aKUstiKOA. ZARATA.....	19
7	AURREIKUSITAKO INGURUMEN-EFEKTUAK ETA, BEHARREZKOA BALITZ, BERAIEEN KUANTIFIKAZIOA.....	20
8	ERAGINA DUTEN SEKTORE-PLAN ETA LURRALDE-PLANEN GAINeko AURREIKUS DAITEZKEEN EFEKTUAK.....	21
8.1	GARAPEN IRAUNKORRERAKO EUSKAL INGURUNE-ESTRATEGIA (2002-2020). 2020 INGURUNE- PROGRAMA MARKOA	21
8.2	DONOSTIAKO GUNE FUNTZIONALAREN LURRALDE-PLAN PARTZIALA (Donostialdea-Bidasoa BEHEA).....	22
8.3	MARJINETAKO, IBAIETAKO ETA BERAIEEN ALDAKETARAKO ANTOLAMENDU SEKTOREKAKO LURRALDE-PLAN.....	22
8.4	GUNE HEZEETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA	23
8.5	NEKAZARITZAKO ETA BASOETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA	23
8.6	ITSASERTZEAREN ANTOLAMENDURAKO ETA BABESERAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA 23	
8.7	Gipuzkoako bizikleta-bideen SEKTOREKAKO lurralde-plana	24
8.8	GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITURETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA.....	25
8.9	MIRABETZA AERONAUTIKOAK ETA AIREKO SEGURTASUNA. SEKTOREKAKO MARKO APLIKAGARRIA.....	25
9	SINPLIFIKATUTAKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOKO PROZEDURAREN APLIKAZIOAREN MOTIBAZIOA	28

10	BEGIETSITAKO ALTERNATIBEN AUKERAKETAREN ARRAZOIEN LABURPENA	30
11	AURREIKUSTEKO, TXIKIAGOTZEKO ETA, KLIMA-ALDAKETA KONTUAN HARTUZ, PLANAREN APLIKAZIOAREN INGURUMENEN EDOZEIN EFEKTU NEGATIBO NABARMEN, AHAL DEN NEURRIAN, ZUZENTZEKO AURREIKUSITAKO NEURRIAK	34
11.1	LANERAKO PRAKTIKA EGOKI OROKORRAK	34
11.2	ZARATAREN MINIMIZAZIOA	35
11.3	ERAGINDAKO AZALEREN ZAHARBERRITZEA	36
11.4	HONDAKINEN KUDEAKETA.....	36
12	PLANAREN INGURUNE-JARRAIPENERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN DESKRIBAPENA.....	37

A. INGURUNE-DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

1 SARRERA

Ingurune-ebaluazioa ezinbestekoa gertatzen da ingurumenaren babeserako. Jasangarritasun-irizpideak kontutan hartzea errazten du erabaki estrategikoak hartzerako orduan, planetako eta programetako ebaluazioaren bidez. Proiektuen ebaluazioaren bidez, zuzenketako edo konpentsazioko mekanismo eraginkorrak ezartzen dituen aldi berean, sor daitezkeen ingurumen-inpaktu zehatzen aurkako prebentzio egokia bermatzen du. Ingurune-ebaluazioa guztiz sendotutako tresna da, garapenari lagundu eta hau iraunkor eta integratzailea izaten ziurtatzen dueña.

Testu honetan lantzen den Ingurune-Ebaluazio Estrategikoa indarrean dagoen araudi nazional eta autonomikoaren babesean idazten da:

- 21/2013, Abenduaren 9ko, ingurune-ebaluazioko legea.
- 211/2012, Urriaren 16ko, ingurune-ebaluazio estrategikoko prozedurako plan eta programak arautzen dituen dekretua.
- 3/1998, Otsailaren 27ko, Euskadiko Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorra.

Jada existitzen den plan baten aldaketa ez nabarmenegi baten aurrean aurkitzen garenez, (dokumentu honen 2 puntuan zehazki azalduta datorrena, alegia), Plan Berezi honi ingurune-ebaluazio estrategikoa sinplifikatua aplikatuko zaio. Arlo hoentan indarrean dagoen araudiari jarraituz, ingurune-dokumentu estrategikoak ondorengo informazioa edukiko du gutxienez:

- Planifikazioaren helburuak.
- Proposatutako plan berriaren eta bere arrazoizko alternatiben garrantzia eta edukia, teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak.
- Planaren edo programaren aurreikus daitezkeen garapena.
- Eragina duen lurralde-eremuan, plan edo programaren garapena baino lehenagoko ingurumenaren egoeraren karakterizazioa.
- Aurreikus daitezkeen ingurumen-efektuak, eta egokia balitz, beraien kuantifikazioa.
- Dokumentu honen inguruko plan sektorial eta lurralde planen aurreikus daitezkeen efektuak.
- Sinplifikatutako ingurune-ebaluazio estrategikoko prozeduraren aplikazioaren motibazioa.
- Begietsitako alternatiben aukeraketaren arrazioen laburpena.
- Klima aldaketa kontuan hartuz, aurreikusteko, txikiagotzeko eta, ahal den neurrian, planaren edo programaren aplikazioak ingurumenean izan dezakeen edozein efektu negativo nabarmen

zuzentzeko neurriak.

- Planaren ingurune-jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena.

1.1 SUSTATZAILEA ETA TALDE IDAZLEA

Plan Bereziaren sustatzailea Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila da. Bere helbidea Erandion (Bizkaian) dago, hain zuzen ere Larrauri Mendotxe Bideko 18 zenbakian (posta kodea 48.990).

Plan Bereziaren idazlea César Aitor Azcárate Gómez Arkitektoa da, **Idom Consulting, Engineering, Architecture**-eko arkitekto bezala EHAEO-ean 1.527 zenbakia duena, eta Bilboko Zarandoa Etorbideko 23 zenbakian helbidea duena.

Ondorengo Sinplifikatutako Ingrune-Ebaluazio Estrategikoa **Idom Consulting, Engineering, Architecture**-ek idatzi du, Nerea Zapirain Lasquibar teknikariak hain zuzen ere (Antolaketa Industrialeko Ingeniaria).

2 AURREKARIAK

Lursailaren gaineko indarrean dagoen antolamendu urbanistikoa Donostiako Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrak (behin betiko 2010eko ekainaren 25ean onartu zenak) eta Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegiko lursaileko Hiri-Antolamenduko Plan Bereziak, A.U. "Ondarretako zabaldua AO.08" (2012ko abenduaren 20an onartua) osatzen dute. Aldi berean, Donostiako HAPO-aren igorpenagatik, 1989ko "ONDARRETAKO ZABALGUNEA" Plan Partzialaren nondik norakoak indarrean daude.

HAPO-ko Arau Partikularretako 3. XEHATUTAKO ZONIFIKAZIOA planoan, aztertzen den lursaila AO.08 Ondarretako Zabalguneke Hirigunean kokatzen den Komunitatearentzako Hornidura dela zehazten da.

Eraikigarritasun fisikoari dagokionez, 2012ko HAPB-aren onespenez 1.872,42 m² sabaiko eraikigarritasun fisikoa zehaztu zuen.

Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegiko lursaileko Hiri-Antolamenduko Plan Berezia bertan kokatzen den eraikinari, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarena dena hain zuzen ere, eskakizun berriak asetu ahal izateko azalera handitzeko beharrak justifikatzen du.

2/2006 lur eta hirigintza legeak bere 69. artikuluan *"plan berezien berezko antolamendua beraien helburua betetzeko erabaki espezifikoaren bitartez zehaztuko da"*, eta *"plan bereziaren zehaztapenak plan partzialetarako aurreikusitako en antzeko dokumentuez formalizatuko dira, bere edukia bere helburu espezifikora estutuz"*. Zentzu honetan 2/2006 Legearen 70 artikulua hiri-antolamenduko plan bereziek *"plan orokorraren dokumentazioan zehazten den hiri-lurraren antolaketa aldatu ahala dutela"* zehazten du.

Gaur egun, eraikigarritasuna ahituta geratzen da, eta hortaz, sabai-azaleraren handiagotze honek bi kontu bere gain hartzen dituan Plan Berezia beharrezkoa egiten du: eraikigarritasunaren beraren handitzea eta eraikigarritasunaren handitze hau posible egingo duen eraikinaren forma. Bi kontu hauek antolamendu xehatuaren zehaztasun propioak dira (volumetría eta eraikigarritasun fisikoa), eta beraz, Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren figura egokitzen jotzen da.

3 PLAN BEREZIAREN HELBURUAK

Eusko Jaurlaritzaren Seguratsun Sailak Donostian aurkitzen den Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegian erabilera administratibora zuzendutako azalera handiagotzeko beharra du.

Plan Bereziaren helburua Ertzaintzaren Komisaldegia kokatzen den partzelaren eraikigarritasuna handiagotzea da (HAPO-ko AO.08 gunea), solairuetako bat handitzeko eta eraikinari bi solairu berri gehitzeko. Helburua eraikinaren handitzeko beharrari erantzute izango da, bulego, aldagela eta harrera gela berriak behar bait dira, bereziki genero bortizkeriaren inguruko gaiei behar duten espazioa emateko. Eraikinaren zahartzearekin lotutako zenbait erreforma egitea izango da beste helburuetako bat.

4 PLAN BEREZIAREN GARRANTZIA ETA EDUKIA. PROPOSATUTAKO ALTERNATIBAK

Aurreko atalean zehaztu bezala, Plan Berezi honek eraikinaren eraikigarritasuna handiagotzea proposatzen du, hurrengo eragiketen bidez azalera handitzeko helburuarekin:

- Behe Solairuaren azaleraren handitzea.
- +4 Solairu berri bat eraikitzea (gaur egun eraikinak BS+3 dauzka). Solairu berriek gainontzekoen perímetro bera izango du.
- Hego-ekialdeko blokearen gainean +5 solairu bat eraikitzea (15,5 x 18 metroko laukizuzen bat).


Honez gain, eraginkortasun energetikoa hobetzeko lan batzuk egitea proposatzen da (hegalen handitzea, itxitura elementuen birhaztea, etc.).

4.1 LANDUTAKO ALTERNATIBAK

Hiru alternativa arrazoizko eta bideragarri planteatzea begiesten da. Zero alternatiba edo ez haztearen alternatiba ez da Donostiako Ertzaintzaren Komisaldegia handitzeko beharretara egokitzen, baina gainontzekoak behar honetara egokitzen dira. Beharretara egokitze hau garrantzitsua da, gizartearentzako zerbitzu bati buruz ari baikara hain zuzen ere.

4.1.1 0 Alternatiba – Aktuazio eza

Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia, Donostiako Infanta Cristina kaleko 28. zenbakian aurkitzen da.



Landutako lursailaren gainean indarrean dagoen hiri-antolamendua, behin betiko 2010eko ekainaren 25ean onartutako Donostiako Hiri-Antolamendu Plan Orokorrak eta A.U. "AO.08 Ondarreta Zabalkundea" Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegia Plan Bereziak (2012ko abenduaren 20an onartua) osatzen dute. Aldi berean, HAPOaren igorpena dela eta, 1989ko "ONDARRETA ZABALKUNDEA" Plan Bereziaren zehaztasunak indarrean aurkitzen dira.

Gaur egun lursailaren eraikigarritasuna ahitua aurkitzen da, eta hortaz, lursaila zuzentzen duen hiri-antolamendua aldatu gabe ez da posible eraikinaren azalera handiagotzea. Hau dela eta, eraikinaren handitzeko beharra, hau da, bulego, aldagela eta harrera gela berriaren beharra, eta bereziki genero bortizkeriaren inguruko gaiei erantzuteko espazioa berrien beharra erantzunik gabe geratuko lirateke, eta baita eraikinean eraginkortasun energetikoa hobetzeko aukera ere.

Hau guztiagatik, egoera honek egungo instalazioen handiagotze bat eskatzen du (eta baita hiri-antolamenduaren beharrezko aldaketa ere). Aldaketa hau ez egiteak zerbitzu hauek beste komisaldegia batetara eramatea suposatuko luke, polizia-gorputzaren osotasuna eta ematen diren zerbitzuak banatuz, eta honek herritarrei ematen zaion arretan eragina izango luke.

4.1.2 1 Alternatiba

Gorputz-poliziala bere osotasunean mantentzeko helburutik abiatuz, eraikina handitzeko eta sortutako beharrezko erantzuna emateko alternatibak proposatzen dira.

Alternatiba honetan beharrezko zehatz-mehatz lotzen zaion handiagotzea proposatzen da, eta beraz, eraikigarritasunaren handitze bat proposatzen da, egungo eraikinean ondorengo aldaketak proposatuz:

- Perimetro orokorra 16 zm-tan handitzea fatxada guztien eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Perimetroaren areagotze hau eraikinaren fatxada guztietan eta solairu guztietan proposatzen da, Vitoria-Gasteiz kaleko Behe-Solairuan izan ezik.
- Behe-Solairua eraikitako 110 m²-tan handitzea.
- 478 m²-ko solairu berri oso bat eraikitzea.
- 173 m²-ko solairu berri bat eraikitzea (kanpoaldeko fatxadetatik 2,00 m atzeratuta geratuko litzatekeena)

Honez gain, eraikinaren formaren aldaketa bat proposatzen da (lerrokadurak eta sestrak planoan deskribatzen den moduan) gaur egungo erikinak lursailaren eraikigarritasun guztia ahitzen baitu. Alde batetik, Behe-Solairuak bere perimetroa zabaltzea eskatzen du, eta horretarako fatxadako lerrokadura (beti ere jabetzaren limitearen barruan) kanporantz eramatea proposatzen da Infanta Cristina Kalearen


elementuetan, kale horretan 6,00m-tako zabalera bermatuz. +1, +2 y +3 Solairuetan (solairu tipoak) hegaldun elementuak luzatzea proposatzen da, eta horretarako, Infanta Cristina Kalean eta Eusko Jaurlaritzaren beste eraikinerantz ematen duen fatxadaren beharrezkoa izango da 1,15m-rainoko hegala baimentzea, eta 10 cm gehiago hauen kanporantzko babeserako; Vitoria-Gasteiz Kalean 1m-koa izango da. +4 Solairuko hegaldun elementuen lerroakadura aurrekoen era berdinean kokatzea proposatzen da. +5 Solairua gainontzeko solairuetako kanpoko fatxadarekiko 2m atzeratuta geratuko da Infanta Cristina Kalean, Vitoria-Gasteiz Kalean eta aurreko biak elkartzen dituen zeharkako kalean.

Proposatutakoaren arabera, eraikinaren azalaren taula hórrela geratuko litzateke:

+0 KOTA GAINEKO AZALERA	ERAIKITAKO AZALERA (m2)		
	PLAN BEREZIA 2012KO MAIATZA	PLAN BEREZIA 2018KO AZAROA	GEHIKUNTZA
Behe Solairua	459,14	569,14	110,00
+1 Solairua	470,24	480,24	10,00
+2 Solairua	470,24	480,24	10,00
+3 Solairua	472,80	482,80	10,00
+4 Solairua	-	478,00	478,00
+5 Solairua (Instalakuntzak)	-	173,00	173,00
DENERA	1.872,42	2.663,42	791,00

+4 Solairuak ezingo du Osakidetza erakundearen eraikinak dauzkan 20,1m-ko erlaitz-altuera gainditu. Aurreko parrafoan aiatu bezala, +5 Solairuaren altueraren kasuan, 23,5m-ko altuera izan ahal du fatxadak gainontzekoak baino 2,00m atzerago geratzen badira. Instalakuntzek (telekomunikabideen antenak izan ezik) ez dute 25,0m-ko altuera gaindituko.

Bukatzeko, +5 Solairua eraikitzeko, beharrezkoa izango da gehieneko altuera aldatzea 23,5m-ko eraikinaren gehieneko altuera eta 25m-ko altuera totala izan arte, instalakuntzetako elementuak +5 solairuan kokatu ahal izateko (telekomunikabideen antenak izan ezik, lekuz aldatuko baita eta 25m-ak gainditu ahal izango baititu).




4.1.3 2 Alternatiba

Bigarren alternatiba honetan lehen alternatibarekiko eraikinaren goikaldeko bolumena handitzea proposatzen da. Desberdintasun bakarra eraikinaren handitze bertikala izango da, kasu honetan bi solairu oso gehitzea proposatzen baita, hau da, alternatiba honetan eraikigarritasunaren handiagotze bat proposatzen da egungo eraikinarengan ondorengo aldaketak aplikatuz:

- Perimetro orokorra 16 cm-tan areagotzea handitzea eraikinaren fatxaden eraginkortasun energetikoa hobetzeko.
- Behe-Solairua 270 m² sabaitan handitzea (azalera osoa 720 m² sabaikoa izango da)
- 525 m² sabaiko 2 solairu oso berriren exekuzioa.

Proposatutako eraikinaren forma eta altuera totala aurreko alternatibaren berdinak dira. Proposatutako lursailaren eraikigarritasun fisikoa handiagoa izango da.



5 PLANAREN AURREIKUS DAITEKEEN GARAPENA

Ondarretako Ertzaintzaren Komisaldegiko Hiri-Antolamenduko Plan Bereziak lursailaren antolamendu xehatuaren zehaztasun propioak jasotzen ditu (eraikigarritasuna, lerrokadurak, altuera, eta abar), eta beraz, Plan Berezi hau onartua eta indarrean izanez gero, zuzenean eraikitze-baimena eman daiteke, beti ere aurretik beharrezko proiektua aurkeztua eta onartua izanez gero.

6 INGURUMENAREN EGOERAREN KARAKTERIZAZIOA PLANAREN GARAPENA BAINO LEHEN ERAGINA JASTAEN DUEN LURRALDE-EREMUAN

6.1 KLIMATOLOGIA

Donostiak, itsasotik gertu izanagatik, klima ozeaniko epela du. Klima tipo hau, temperatura leunek, hezetasun erlatibo altuak, egun hodeitsu ohikoek eta urte guztian zehar banaturiko amiztasun handiko euriek bereizten dute. Gainontzeko Euskal Herriko inguruetan bezalaxe, mendebaldeko zirkulazio atmosferiko orokorrarekiko bere hegoalde-egoerak argi eta garbi bereizten diren bi urtaro izatea suposatzen du –uda eta negua-, beste bi trantsizio urtaro tartekatuz: udaberria eta udazkena. Köpen sailkapen klimatikoaren arabera, urtaro sikurik gabeko klima epel eta hezebezala identifikatzen da, sailkapen horretan Cfb kodigoaz sinbolizatzen delarik.

Urteko batazbesteko tenperaturak nahiko bigunak dira, eta itsasoaren hurbiltasuna dela eta hego-ipar gradiente baten existentzia egiaztatzen da, temperatura nolabait gozatzen duelarik. Aldi berean, beste mendebalde-ekialde gradiente bat ere nabarmentzen da, gunearen ezaugarri orografiko eta topografikoak malkartsuak direla eta temperatura jeitsiera bat somatu daitekeelarik. Era honetan, Igeldon (218 metro itsasoaren mailarekiko) urteko batazbesteko temperatura 13,1°C-koa den bitartean, Ategorrietan (8 metro itsasoaren mailarekiko) 12,1 °C-koa da y Lasarten (85 metro itsasoaren mailarekiko) 14,5°C-koa. Urteko anplitude termikoa ere ez da handia, landutako hiru urtaroetan 11,0°C eta 11,5°C arteko balioetan egongo delarik. Hilabeterik hotzena urtarrila da beti, Ategorrietan 6,9°C-ko batazbesteko tenperaturak izango direlarik, 7,9°C-koa Igeldon, eta 9,1°C-koa Lasarten. Hilabeterik beroena osteria abuztua izango da, Ategorrietan 18°C-ko batazbesteko tenperaturak izango direlarik, eta 20,2°C-koa berriz adibidez Lasarten.

Ikuspuntu termiko batetik, Donostiako klimaren ezaugarri nagusia temperatura bigunak direla baieztatu dezakegu, eta neguan irradiazio bidezko bero galera galerazten duten eta udan berriz gehiegizko berotzea galerazten duten egun hodeitsuak dira honen arrazoi nagusia. Guzti honek aldi berean negu epelak dakartza (itsas korronteen fluxuak eragindako aire heze eta epelen masak), hotz-aldi luzerik ia gabe eta 7°C-tik gorako batazbesteko tenperaturekin, klimaren hego-izaera dela eta. Neguak gainera hego haizearen eragina somatuko du, föehn3 izaerako Haizea hain zuzen ere, eta honek temperatura epelagoak ekarriko ditu neguan, eta baita uda bigunagoak ere (egun hodeitsuak maiztasun handiarekin eta aire masa ozeanikoen etorrera, udako gehigikeriak gutxituz), batazbesteko tenperaturak 20°C-ra iritsiko ez direlarik, eta ezta egun zakar gehiegirik ere.


6.2 GEOLOGIA E HIDROGEOLOGIA

Geologiari dagokionez, eskualde-eskala lantzen ari garen gunea Euskal-Kantauriar mendilerroaren barruan aurkitzen da eta flysch detritiko kalkareoaren materiales osatua dago, zehazki kretaziar garaiko kampaniar marga eta hondar-kareharriz. Zehatzagoak izanez, lantzen ari garen gunea deposito alubial eta alubio-kolubialen gainean aurkitzen da. Termino honen barruan ibai nagusien arrastoen lautada ureztagarriek osatzen dituzten deposito alubialak aurkitzen dira. Deposito hauek, haranaren behekaldeko betelana osatzen dutenak, izaera desberdineko (iturri gunearen araberakoak) nahiz proportzio eta antolaketa desberdinetako legar borobilduak izateagatik nabarmentzen dira. Lantzean behin purutasun handiko buztin metaketak azaltzen dira (gainezkatze atalak).

Bestalde, lantzen ari garen guneko materialek porositate bidezko iragazkortasun baxua eta akuiferoen ahultasun baxua dute. Interes hidrogeologikoen planoaren arabera, gunea Zumaia-Irun interes hidrogeologikodun gunearen gainean aurkitzen da (ez da interés berezidun gun bat).

6.3 HIDROGRAFIA

Lantzen ari garen gunearen inguruan, 134 metrotara, Igara erreka kanalizatua iragaten da.



6.4 FLORA ETA LANDAREDIA. GIZARTEARENTZAKO INTERESDUN HABITATAK

Gune guztiz urbanizatu bat denez, bertan aurki dezakegun landaredia espezie apaingarriek osatzen dute (azaleko habitatak). Ez dago komunitatearentzako interesdun habitatik ez lantzen ari garen guenean eta ezta inguruetan ere.

6.5 FAUNA

Lantzen ari garen lursailaren zati bat Gipuzkoako Hegoaldeko Igelaren (*Hyla Meridionalis*) Kudeaketa Planaren barruan aurkitzen da. Espezie hau estatu mailan zorrozki babestutako fauna bezala katalogatua dago, eta euskal erkidego mailan berriz desagertzeko arriskua duen espezie bezala.



Kudeaketa Plana kriterio nagusi baten arabera garatzen da: gunearen garapen urbano eta industrialak egungo populazioarengan duen eragina ekiditea. Gaur egun garapen hau da espeziearentzat arriskurik handiena, bai zuzenean eta baita zeharka ere, populazioaren zatirik handiena gune industrial baten barruan eta honen alboan garatu den gune urbano batean baitago; hortaz, Plan honen helburu nagusia populazioak berriz ere mendiaren iparraldeko gunea okupatzea izango ga, hau da, Mendizorrotz mendixka, gune urbanoetatik eta hauen inguruetatik espeziea aldentuz. Modu honetan, populazioak gune naturalak okupatuko lituzke berriro ere, non mugarik gabe edo gutxienez natural erako mugarik gabe garatu ahal izango litzateke, eta aldi berean lgarako inguru industrialaren garapenenan oztopoak ekidingo lirateke, bertan populazioak ez baitauka bere garapenari jarraipena emateko aukerarik.

Bestalde, lantzen ari garen esparrua ez da hegaztiak instalazio elektrifikatuengandik babesteko guneen artean aurkitzen.



6.6 BABESTUTAKO NATUR-GUNEAK. KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Lantzen ari garen esparrua ez da babestutako gune natural batean edo korridore ekologiko batean aurkitzen.

6.7 KALITATE AKUSTIKOA. ZARATA

Lantzen ari garen gunea Donostiako Antiguoa auzoan kokatzen da, eta honek Babes Akustiko Bereziko Gunearen Adierazpena dauka. Honek dioenez, *“kaleak dira beraiei inguruetan zarata mailarik altuena sortzen duten zarata fokuak, eta bertan aurkitzen da kaltetutako populaziorik gehiena ere; errepideak ostera beraiei inguruko guneetan eragin konkretuagoa daukate. Tren azpiegiturei dagokienez, ez dute inguruko eraikinengatik nabarmenezko moduko kalterik sortzen”*.

Beraz, emaitza hauen arabera, *“El Antiguoa”* gune-planaren lehentasuna kaleek eragindako kalte akustikoa murriztea izango da lehenik, eta gero errepideek eragiten dutena.”

Dokumentuak konponbide bezala, eta aztertutako Plan Bereziaarekin erlazionatuta, ondorengo adierazten du:

- Eraikitzen den edozein eraikin berri edo guztiz zaharberritzen den edozein eraikinek planaren Kalitate Akustikoaren Helburuak betetzeko behar duen isolamendu akustikoa izango du.

7 AURREIKUSITAKO INGURUMEN-EFEKTUAK ETA, BEHARREZKOAK BALITZ, BERAIEK KUANTIFIKAZIOA

Plan Bereziak proposatutako aldaketekin erlazionatutako eragina eraikina handitzeko eraikitze-faseekin erlazionatuta dago batez ere.

Aldaketaren eragin bisuala (eraikinaren altuera handitzea alegia) inguruarekin BATERAGARRIA kontsideratzen da, eraikinak ez bailuke ingurukoaren altuera gaindituko (ikus 10. puntua). Zentzu honetan, gaur egun eraikinaren terrazan aurkitzen den eta etorkizunean bertan geratuko den telekomunikabide-antena, bere funtzionaltasunean eragingo duen inerferentziarik ez badago behintzat, egokiena beheren dagoen kota-altuenean kokatzea dela uste da.

Gune urbano bati buruz ari garenez, jadanik eraikin bat existitzen den lursail urbanizatu batean non altuera, lerroakadurak eta sestrak aldatuko diren, ez dago elementu naturalen gaineko eraginik, esaterako: landaredia, flora, fauna, babestutako espazio naturalak, ur-baliabideak, eta abar., beraz, ez dira eragin hauek kuantifikatuko.

Ondorioz, aurreikus daitezkeen Plan Bereziaren eragin naturalak eraikinaren altuera berriak sortutako eragin bisualarekin erlazionatuta daude, eta eraikin berriaren altuera ingurukoekin bateragarria kontsideratzen da. Honez gain, eraikitze-faseen akzio propioekin ere erlazionatuta dago, 11. puntuan proposatzen diren neurrien aplikazioaren bidez, eta hauek ere inguruarekin bateragarriak y jasagarriak kontsideratzen dira.

8 ERAGINA DUTEN SEKTORE-PLAN ETA LURRALDE-PLANEN GAINEKO AURREIKUS DAITEZKEEN EFEKTUAK

8.1 GARAPEN IRAUNKORRERAKO EUSKAL INGURUNE-ESTRATEGIA (2002-2020). 2020 INGURUNE-PROGRAMA MARKOA

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurune-Estrategiak (2002-2020) euskal gizartearentzat ingurumen-helmugak ezartzea du helburu nagusitzat, egungo eta hurrengo belaunaldientzat bizi-kalitate on bat berma dadin eta gizartearentzako, nahiz administrazioarentzako edo agente emankorrenzako jarraibide eginkizun komunak ezar daitezen. Horretarako, Estrategia ingurumen-helmuga batzuren, helburu nagusi batzuren eta epe luzerako helburuak onartzearen (2020) inguruan antolatzen da, beharrezko baldintza batzuk kontutan hartuz.

INGURUMEN HELMUGAK:

- Aire, ur eta lur garbi eta osasuntsuak bermatzea.
- Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.
- Naturaren eta biodibertsitatearen babesa: indartu beharreko balio bakarra.
- Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: planteamendu amankomun baten beharra.
- Klima aldaketaren eragina mugatzea.

BEHARREZKO BALDINTZAK:

- Ingurumen-aldagaia gainontzeko politiketan integratzea.
- Indarrean dagoen legedia hobetzea eta aplikatzea.
- Merkatuari ingurumenaren alde egin dezan bultzatzea.
- Gizartea, administrazioa eta enpresak ahalmenu eta arduratzea, eta beraien jokabideak iraunkortasunera bideratzea.
- Ingurumenaren inguruko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea.

Plan honen helburuekin zerikusia duten gaiei dagokienean, hau da, Ertzaintzaren instalazioak handitzea eta gizarteari eskeintzen zaion zerbitzua hobetzea, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurune-Estrategia, bere 4. helburuan. Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi amankomun batek lurralde orekatu eta irisgarriago bat sendotzeko beharra ezartzen du, interes orokorreko jarduera sozial eta ekonomikoen bideragarritasuna bermatuz, eta aldi berean landa-eremuen, gunen urbanoen eta kostaldearen ondarea, aniztasuna, aberastasuna eta erakargarritasun naturala mantenduz. Era honetan, 4. helmugaren lehenengo helburuak lurraldearen erabilera iraunkor bat lortzea nahiko du, ondorengo moduen bidez zehaztuz:

- Lurraldeko jarduera sozioekonomikoen banaketa espaziala hobetzea. Zentzu honetan, eraikinari altuera gehiago emateari lehentasuna emango zaio egoitza osagarri berri baten eta azalera gehiago okupatzearen aurreretik, zerbitzuak zatikatzeaz gainera.
- Kontsolidatutako hiriaren berritzea eta birgaitzea sustatuko da.
- Gune urbanoetan kalitatezko diseinua eta diseinu erakargarria sustatuko dira. Handitzearen bidez Ertzaintzaren zerbitzu guztiak egungo eraikinean biltzeak gizartearentzako zerbitzu hobe bate matea suposatuko du.

Beste alde batetik, Estrategiaren 5. helmuga aldaketa klimatikoaren eragina murrizten saiatuko da, negutegi-efektuko gasen kontrolaren inguruan eta karbonozko konkete bidez gas hauen kontzentrazioaren murrizketaren inguruan bi helburu ezarriz. Helmuga honek eta bere helburuek eraginkortasun-energetikoaren hobekuntza sustatuko dute, hau baita aztertzen ari garen Plan Bereziaren helburuetako bat.

8.2 DONOSTIAKO GUNE FUNTZIONALAREN LURRALDE-PLAN PARTZIALA (DONOSTIALDEA-BIDASOA BEHEA)

Uztailaren 27ko 121/2016 Dekretuak, Donostiako Inguru Funtzionalako Lurralde-Plan Partziala behin-betiko onartu zuen (Donostialdea-Behe Bidasoa). LPP honek bere Inguru Funtzionala antolatze helburua du, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Jarraibideen zehaztasunak kontutan hartuz, Otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak onartuak izan ziren, Maiatzaren 31ko 4/1990 Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko Legearen 11 eta hurrengo artikuluek diotena jarraituz. Lantzen ari garen esparrua LPP honen Inguru Funtzionalaren barnean aurkitzen da, “Elkarte Urbanoak” zonifikazioaren barruan hain zuzen ere. Elkarte Urbano eta Periurbano hauetarako, bere konfigurazioa etenik gabeko eta integritate funtzional osodun sare urbanoak bezala sustatzea proposatzen da, ekipamendu osagarriak gehituz eta zaharkitutako edo erabiltzen ez diren espazio-tartek berrantolatuz. Lantzen ari garen Plan Bereziak proposatutako garapenak ez du eraginik izango LPP honek zehazten duenarengan.

8.3 MARJINETAKO, IBAIETAKO ETA BERAIEK ALDAKETARAKO ANTOLAMENDU SEKTOREKAKO LURRALDE-PLAN

Abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak, Euskal Autonomi Erkidegoko (Kantauriar malda) marjinetako, ibaietako eta errekaetako Sektorekako Lurralde-Plana onartu zuen. Bestalde, Azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak, behin-betiko onartzen du SLP-aren aldaketa (Kantauriar eta mediterranean

maldak).

Sektorekako Lurralde-Planean jasotako araudiak aldentze espezifiko batzuk zehazten ditu (eraikinengandik, elementu urbanoetatik eta beste interbentzio batzurengandik) ingurune-osagai, osagai urbanistiko eta osagai hidraulikoen arabera kanalen mailak zehaztuko direlarik.

Plan Berezian proposatutako antolamendua jadanik eraikita dagoen eraikin batengan garatzen da, eta beraz, SLP-arekin ez da elkarrekintzarik egongo.

8.4 GUNE HEZEETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA

Uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez (EHBO 19-11-2004ko 222 zenbakia), Euskal Autonomi Erkidegoko Gune Hezeetako Lurralde-Plan Sektoriala behin-betiko onartu zen. Dekretu hau indarrean egon zen garaian, Biodibertsitatearen Planifikazioaren eta Ingurumenaren Parte-hartzearen Zuzendaritzak Euskal Autonomi Erkidegoko Gune Hezeetako Lurralde-Plan Sektorialean aldaketa batzuk egitea beharrezkoa zela adierazi zuen, eta baita Dekretua Euskal Herriko Buletin Ofizialean argitaratzerako orduan egin ziren hanka-sartze batzuk zuzentzea ere. Aldaketa haiek Urriaren 30eko 231/2012 Dekretuan jaso ziren, Euskal Autonomi Erkidegoko Gune Hezeetako Lurralde-Plan Sektoriala zehaztuz.

Lantzen ari garen Plan Bereziaren antolamendu esparrua SLP-aren antolamendu esparrutik at geratzen da.

8.5 NEKAZARITZAKO ETA BASOETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA

Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez, Nekazaritzako eta Basoetako Sektorekako Lurralde-Plana behin-betiko onartzen da. LPS honen antolamendu-esparrua EAH osora hedatzen da, jadanik existitzen diren gune urbanoetara ezik. Gune hauen artean, lantzen ari garen esparrua bezala dokumentu hau behin-betiko onartu zen egunean hiriko antolamendu orokorrak urbano edo urbanizagarri bezala sailkatuta zeuden guneak kontsideratuko ditugu, eta bezraz, SLP-aren eta proposamenaren artean ez da elkarrekintzarik egongo.

8.6 ITSASERTZEAREN ANTOLAMENDURAKO ETA BABESERAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA

SLP honen antolamendu esparrua Kostalde Legearen eraginpean aurkitzen den gunearen barruan dago: "itsasoaren barne-limitetik 500m-tako zabalera minimoa duen ariela". Gune hau ibaiak dauden


lekuetan marearen eragina somatzen den guneraino zabaltzen da, eta honek Euskal Herrian ekinokziotako itsasbeheratik +5m kota esan nahi du.

Gu ari garen kasuan, gune urbano bati buruz ari garenez, SLP-aren eta proposamenaren artean ez da elkarrekintzarik egongo.

8.7 GIPUZKOAKO BIZIKLETA-BIDEEN SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA

SLP honen aplikazio esparrua Txirrindulari-Bideen Oinarrizko Sare Foralak osatzen du, eta Gipuzkoako Lurralde Historikotik iragaten da bere osotasunean. Ikuspuntu funtzional batetik, SLP hau 9 oinarrizko ibilbidez osatuta dagoen Gipuzkoako Txirrindulari-Bideen Oinarrizko Sare honek herrien arteko eta motordun gabeko mugikortasun seguru, eroso eta etengabe bat izaten saiatuko da, bere lurralde-arteke izaerari ere erantzuna ematen saiatuz.

Donostia-Mutriku 2. ibilbidea lantzen ari garen esparruaren aldamnetik iragaten da, berau ukituz. SLP-aren eta proposamenaren artean elkarrekintzarik egongo ez den arren, beharrezko neurriak hartu beharko dira obra egiten ari diren garaian ibilbidearen jarraitasuna bermatu dadin.



8.8 GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITURETAKO SEKTOREKAKO LURRALDE-PLANA

SLP honen helburu orokorra Gipuzkoako Honakinen Kudeaketarako Plan Integralean zehazten den hondakinen kudeaketa ereduan jasota dauden eta Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat beharrezkoak izango diren azpiegitura publikoak kokatzea izango da, Europako, estatuko eta Euskal Herriko araudi-dokumentuen iraunkortasun-irizpideak jarraituz, eta baita indarrean dagoen antolamendu sektorial autonomikoari eta foralari erantzun egokia ematea ere.


SLParen eta proposatzen den hiri-antolamenduaren artean ez da inongo elkarrekintzarik egongo.

8.9 MIRABETZA AERONAUTIKOAK ETA AIREKO SEGURTASUNA. SEKTOREKAKO MARKO APLIKAGARRIA

Ondorengo lerroetan, lantzen ari garen Plan Berezian eragina duen eta indarrean dagoen araudi-zerrenda azaltzen da:

- Aire-nabigazioko uztailaren 21eko 48/1960 Legea, eta hau aldatu zuen neurri fiskal, neurri administrativo eta gai sozialen neurrien abenduaren 29-ko 55/1999 Legea.
- Uztailaren 7ko Aire-segurtasuneko 21/2003 Legea.
- Abenduaren 30eko 13/1996 Legearen 166 artikulua, neurri fiskal, neurri administrativo eta gai sozialen neurrien ingurukoa.
- Otsailaren 24ko mirabetza aeronautikoen 584/1972 Dekretua, bere gaur egungo idazketan.
- Abenduaren 4ko Interes Orokorreko Aireportuen eta hauen Zerbitzu Guunearen Antolamenduaren 2591/1998 Erreal-Dekretua, bere gaur egungo idazketan.
- Martxoaren 18ko 792/1976 Dekretua, non Donostiako Aireportuaren mirabetza aeronautiko berriak ezartzen diren.
- Urriaren 11ko 2057/2004 Erreal-Dekretua, non Donostiako (Gipuzkoa) DVOR eta DME aire-nabigazioaren laguntzarako instalazio irrati-elektrikoaren mirabetza aeronautikoak ezartzen diren.
- 2006ko uztailaren 13ko FOM/2617/2006 Sustapen Ministeritzaren Araua, non Donostiako Aireportuaren Plan Zuzendaria onartzen den.
- Apirilaren 26ko 297/2013 Erreal-Dekretua, non Otsailaren 24ko Mirabetza Aeronautikoen 584/1972 Dekretua aldatzen den, eta Abenduaren 4ko Interes Orokorreko Aireportuen eta hauen Zerbitzu Guunearen Antolamenduaren 2591/1998 Erreal-Dekretua ere aldatzen den, Abenduaren 30eko Neurri Fiskal, Neurri Administrativo eta Gai Sozialen 13/1996 Legearen 166. artikuluan zehazten dena jarraituz.

Hurrengo irudian, Donostiako Aireporturako Mirabetza Aeronautikoen proposamena aurkezten da.



Beraz, lantzen ari garen esparrua Donostiako Aireportuaren Mirabetza Aeronautikoen proposamenaren barruan aurkitzen da, eta 584/1972 Dekretuaren 29. artikuluaaren aplikazioaz (bere

gaur egungo idazketan), Sustapen Ministeritzako Abiazio Zuzendaritza Orokorrak hurrengo antolamenduaren inguruan informatu behar du:

“2. Proiektu-planak edolurralde-antolamendu urbanistikoko gailuak, edo hauen berrikusketa edo aldaketak, eta instalazio aeronautiko zibilen mirabetza aeronautikoen eraginpean espazioak uzten dituztenak, Sustapen Ministeritzako Abiazio Zuzendaritza Orokorraren partetik informatuak izango dira. Horretarako, antolamendu gailuaren onarpena baino lehenago, antolamenduaren erakunde kompetenteak Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Orokorrari txosten horren argitaratzea eskatuko dio. Antolamenduaren aldaketaren eta berrikusketaren inguruko txostenak aldaketaren bat jasan duten gaiei buruz arituko dira.”

9 SINPLIFIKATUTAKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOKO PROZEDURAREN APLIKAZIOAREN MOTIBAZIOA

Ingurumen-Ebaluazio estrategikoko prozedura arrunt edo sinplifikatu bat egiteko motibazioak Abenduaren 9ko 21/2013 Legean araututa dator, bere 6. artikuluan:

6. Artikulua - Ingurumen-ebaluazio estrategikoaren aplikazio esparrua.

1. Ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie plan eta programei, eta baita hauek jasaten dituzten aldaketei ere, aldaketa hauek Administrazio publikoak eraginak edo onartuak direnean, eta beraien idazketa eta elaborazioa Ministro Kontseilu batean edo Autonomi Erkidego baten Gobernu Kontseilu batean jasotako akordio batetik behartua edo arautua datorrenean, noiz:

- a. Legalki ingurumen-ebaluazio estrategikokat bete behar duten etorkizuneko proiektuen baimena lortzeko markoa ezartzen dutenean, eta nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, urbaliabideen kudeaketa, lurreko itsas domeinu publikoen okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikabideak, turismoa, lurralde eta landa eremuen plangintza, edo lurraren erabileraren inguruko gaiez ari direnean; edo,
- b. Natura Sarea 2000 espazioan eragina dutelako ebaluazio bat eskatzen dutenak, Abenduaren 13ko Natur Ondarea eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legeak aurreikusten duen terminoetan.
- c. 2. atalean aurkitzen direnak, kasu bakoitzean ingurumen-organuak hórrela erabakitzen duenean ingurumen-txosten estrategikoan, beti ere V. eranskinaren kriterioak jarraituz.
- d) 2. atalean jasotako plan eta programak, ingurumen-organuak hórrela eskatzen duenengan, edo sustatzaileak hórrela eskatzen duelako.

2. Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua izango dute:

- a. Aurreko atalean aipaturiko plan eta programen aldaketa txikiek.
- b. Aurreko atalean aipaturiko plan eta programek, herri mailako azalera txikiko guneak lantzen dituztenean.
- c. Etorkizunean proiektuak baimentzeko marko bat ezarriz, aurreko ataleko ezaugarriak betetzen ez dituzten plan eta programak.

Aztertzen ari garen Plan Berezia, "Plan Orokorren dokumentazioan zehazten den hiri-antolakuntza xehatua aldatzea" ahalbidetzen duen figura urbanistikoa da. Momentu honetan, lursailaren eraikigarritasuna ahitua dago, eta beraz, proposatzen den sabai-azalerak " kontu jasotzen dituen Plan

Berezi bat beharrezkoa egiten du: eraikigarritasunaren beraren handiagotzea eta eraikigarritasunaren handiagotzea barneratuko duen eraikinaren forma. Bi kontu hauek antolamendu xehatuaren zehaztasun propioak dira (bolumetria eta eraikigarritasun fisikoa), eta beraz, Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren figura egokia dela kontsideratzen da.

Ingurumen-Ebaluazio estrategiko sinplifikatu batetara jotzeko arrazoiak ondorengoagatik justifikatuta daude:

- Ez du Natura Sarea 2000 espazioa batean eraginik izango, Abenduaren 13ko Natur Ondarea eta Biodibertsitatearen 42/2007 Legeak aurreikusten duen terminoetan, eta ezta beste babestutako ingurune natural bat ere.
- Ez da lur gehiago okupatze, eta hortaz ez da elementu naturalengan eragingo, obrak berak eragin diezaiekeen lursaileko bertako landaredia kontutan hartu gabe (belarra eta espezie apaingarriak).
- Plan Berezitik deribaturiko eraikuntza proiektuak (gune urbano batean aurkitzen den eraikinaren altueraren handitzea) ez du ingurumen-inpaktuko ebaluaziorik behar.
- Azalera txikiko gune bat da, aztertzen ari garen esparruaren azalera 1.000 m² baino txikiagoa delarik, gune urbano batean eta behin lursailaren eraikigarritasuna aldatuta.

Aurrekoaren arabera, ingurumen-ebaluazioko legearen 2. ataleko 6. artikuluan jasotzen den kasuetako bat dela ondorioztatzen da, eta beraz, **Ingurumen-Ebaluazio Estrategiko Sinplifikatu** bat dagokio.

10 BEGIETSITAKO ALTERNATIBEN AUKERAKETAREN ARRAZOIEN LABURPENA

Dokumentu honetan zehar aipatu den bezala, lantzen ari garen Plan Bereziaren helburu nagusia Donostiako Ondarretako Ertzaintzaren instalakuntzak handitzea da, hau da, bulego, aldagela eta harrera gela berriak izatea, eta bereziki genero bortizkeriaren inguruko gaiei erantzuteko espazio berriak izatea, eta baita eraikinean eraginkortasun energetikoa hobetzea ere, honetarako beharrezkoak diren aldaketak eginez.

Beraz, proposatutako eta ebaluatutako alternatibak arrazoizkoak kontsideratzen dira helburu hauek betetzeko eta hiritarrei kalitatezko zerbitzu bat emateko.

Alternatibak	Deskribapena
1 Alternatiba	Alternatiba honetan handitzeko beharretara-juxtu egokitzen den eraikinaren handitze bat proposatzen da. Honek eraikigarritasunaren handiagotze bat suposatzen du, eta oinarrian, egungo eraikinaren gainean, solairu oso bat (+4) eta solairu partzial bat (+5) jasotzea izango litzateke.
2 Alternatiba	Aurreko alternatibarekin alderatuz, alternatiba honetan goikaldeko volumetría handitzea proposatzen da, eraikinaren handiagotze bertikalean bakarrik desberdinduz, kasu honetan bi solairu berri oso proposatzen baitira (+4 eta +5).
0 Alternatiba	Alternatiba honek lursailaren antolamendu xehatua ez aldatze suposatzen du, eta ehortaz, ezingo litzateke eraikina handitu.

Hurengo lerroetan, proposatutako alternatibak aukeratzeko arrazioak azaltzen dira:

1 Alternatiba:


Alternatiba honetan handitzeko beharretara-juxtu egokitzen den eraikinaren handitze bat proposatzen da. Honek eraikigarritasunaren handiagotze bat suposatzen du, egungo eraiknaren gainean ondorengo aldaketak proposatuz:

- Perimetro orokorra 16 zm-tan handitzea fatxada guztien eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Perimetroaren areagotze hau eraikinaren fatxada guztietan eta solairu guztietan proposatzen da, Vitoria-Gasteiz kaleko Behe-Solairuan izan ezik.
- Behe-Solairua eraikitako 110 m²-tan handitzea.
- 478 m²-ko solairu berri oso bat eraikitzea.
- 173 m²-ko solairu berri bat eraikitzea (kanpoaldeko fatxadetatik 2,00 m atzeratuta geratuko litzatekeena)

+4 Solairuak ezingo du Osakidetzaaren eraikinak dauzkan 20,1m-ko erlaitz-altuera gainditu. Aurreko parrafoan aiatu bezala, +5 Solairuaren altueraren kasuan, 23,5m-ko altuera izan ahalko du fatxadak gainontzekoak baino 2,00m atzerago geratzen badira. Instalakuntzek (telekomunikabideen antenak izan ezik) ez dute 25,0m-ko altuera gaindituko.

Honez gain, eraikinaren forman aldaketa bat proposatzen da (lerrokadurak eta sestrak) egungo eraikitze-bolumetriak eraikigarritasuna guztiz ahitzen baitu.

Alternatiba honek eraikinaren handitzeko beharra asetzen du, eta aldi berean gorputz-polizialaren integritatea mantendu eta hiritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzen laguntzen du. Alternatiba honen eragin bisuala txikiagoa da +5 solairuaren tamaina gutxiagotu egin baita, “4.1 Landutako Alternatibak” ataleko irudietan ikus daitekeen bezala. Hurrengo irudian, alternativa honetan proposatzen den eraikuntzaaren inguruko eraikinekiko perfila ikus daiteke:



Alternatiba hau denetan bideragarriena dela kontsideratzen da, Donostiako Segurtasun –sailaren beharrei erantzun egoki bate maten dielako eta bere eragin bisuala urria delako. Antolamendu berriarentzat proposatutako aldaketek eraikinak inguruarekin duen erlazioa aberasten du, eraikinari ikuspen handiagoa emanez, eta hau beharrezkoa du segurtasun-ekipamendu bat bere baitan duen eraikinak. Aldi berean, hobekuntzek modu positiboan eragingo dute inguruan, hesiak ekidinez, oinezkoentzako espazioak zabalduz eta kalitatezko espazio publiko bat sortuz.

2 Alternatiba:


Bigarren alternativa honetan aurreko alternatibarekiko goikaldeko bolumetriaren handitze bat proposatzen da, aldaketa bakarra handitze bertikal hau bera izango delarik, kasu honetan bi solairu oso haztea proposatzen baita, hau da, alternatiba honek eraikigarritasunaren handitze bat proposatzen du egungo eraikinaren gain ondorengo aldaketak eginez:

- Fatxaden eraginkortasun energetikoaren hobekuntza hauen perimetroa 16 cm kanporatz ateraz.
- Behe-Solairuaren handitzea $270 \text{ m}^2/\text{sabai-tan}$ (solairu honen azalera guztia $720 \text{ m}^2/\text{sabai-koa}$ izango da)
- $525 \text{ m}^2/\text{sabai-ko}$ 2 solairu oso eraikitzea

Kasu honetan eraikinaren altuera totala 23m-koa izango da, eta 25 m-ko altuera balekoa izango da instalazio elementuen kasuan (gehienezko altuera honetatik at geratuko da egungo telekomunikabide antena, lekuz aldatua izango baita eta 25 m-ak gainditu ahal izango baititu).

Honez gain, eraikinaren forman aldaketa bat proposatzen da (lerrokadurak eta sestrak) egungo eraikitze-bolumetriak eraikigarritasuna guztiz ahitzen baitu.

Alternatiba honen eragin bisuala 1 Alternatiba baino handiagoa da, eta arrazoi honengatik ez da alternativa hau aukeratuko:



0 Alternatiba edo aktuaziorik eza:

Alternatiba honek lursailaren antolamendu xehatua bere hortan uztea suposatzen du. Gaur egun, lursailaren eraikigarritasuna ahitua dago, eta beraz, azalera eraikia handitzea ez da posible (lursaila arautzen duen hiri-antolamendua aldatu gabe) bulegoak, aldagelak eta hiritarrentzako arreta gelak handitzeko beharrari erantzuna emateko, eta bereziki genero bortizkeriaren inguruko gaiei erantzuteko, eta baita eraikinean eraginkortasun energetikoa hobetzeko ere.

Hortaz, egoera honek gaur egungo instalakuntzen handitze bat eskatzen du (eta honi dagokion hiri-antolamenduaren aldaketa ere bai) edo, handitze hau aurrera eraman ezean, zerbitzu hauek beste komisaldegi batean kokatu beharko lirateke, gorputz-polizialaren eta eskaintzen diren zerbitzuen integritatea apurtuz, eta hoenk hiritarrek jasotzen duten zerbitzuan eragina izango luke.

11 AURREIKUSTEKO, TXIKIAGOTZEKO ETA, KLIMA-ALDAKETA KONTUAN HARTUZ, PLANAREN APLIKAZIOAREN INGURUMENEO EDOZEIN EFEKTU NEGATIBO NABARMEN, AHAL DEN NEURRIAN, ZUZENTZEKO AURREIKUSITAKO NEURRIAK

Proposatutako Plan Bereziarekin erlazionatutako eraginak, eraikinaren handitze obraren beraren prozesuarekin dute batipat zerikusia.

Aldaketaren eragin bisuala (eraikinaren altuera handitzea) inguruarekin bateragarria kontsideratzen da, eraikinak ez bailituzke ingurukoak gaindituko. Zentzu honetan, gaur egungo eraikinean goiko terrazan dagoen eta etorkizunean bertan mantenduko den telekomunikazio antenari dagokionez eraikinaren goikaldeko kotarik baxuenean kokatzea komenigarria da (+23,5m kota), beti ere bere funtzionalitatean eraginik ez badu.

Zaritari dagokionez, ondoren proposatzen diren control-neurriez gain, eraikinaren handitzearen eraikitze-proiektuak DONOSTIAKO HIRIAN “ANTIGUAKO” BABES AKUSTIKO BEREZIKO GUNEAREN ADIERAZPENEAN zehazten diren kalitate akustikoaren helburuak betetzeko beharrezko isolamendua definitu beharko du.

Bestalde, Gipuzkoako Txirrindulari-bideen SLPan jasotako Donostia-Mutriku 2. ibilbidea (ikus 8.7 atala), lantzen ari garen esparruaren aldamenetik igarotzen da. Proposatutako antolamenduak SPLareki inongo elkarrekintzarik suposatzen ez duen arren, beharrezko neurriak hartu beharko dira obra Aurrera eramaten den prozesuan zehar aipatu ibilbideari jarraitasuna emateko.

Azkenik, klima aldaketari dagokionez, Plan Berezian datorrena betetzea bakarrik klima aldaketaren aurkako neurriak hartzea suposatzen du, eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko ekintzak proposatzen baitira.

Ondorengo lerroetan, neurri multzo bat proposatzen da obrak irauten duen bitartean ingurumenarengan edozein eragin negativo aurreikusi, murriztu edo konpontzeko:

11.1 LANERAKO PRAKTIKA EGOKI OROKORRAK

Lanak irauten duten bitartean neurri multzo bat eta antolamendu praktika egokiak aplikatu beharko dira airearen, uraren eta lurraren kalitateari ez diezaion ezerk eragin. Orohar ondorengoak kontuan hartu daitezke:

- Lana irauten duen denbora osoan zehar lan egiten den eremua era egokian adieraztea, lan-eremutik kanpo aurretik baimendu gabeko ekintzak debekatuz. Eremu laguntzaileen diseinua eta kokapena eta hauei loturiko azpiegiturak inguruko lursailengan inolako eraginik sortuko ez

dien lur-eremuetan kokatuko dira.

- Obrako makineriaren badaezpadako mekanikaren zainketa egingo da, erregai edo olioaren isurketak ekiditeko. Makineria edo ibilgailuen garbiketa edo mantenurako ekintzak lan-eremutik kanpo egingo dira. Ekintza hauek tailerretan, gasolindegietan edo horretarako prestatuta dauden lekuetan (beti ongi iragazkaiztutako azaleretan) egingo dira, non isuritako hondakinak era egokian kudeatuak izango diren.
- Materialen zama-lanak ahalik eta gehien murriztuko dira, baita indusketa-lanak ere (beharrezkoak badira), eta orokorrean hautsaren edo partikulen sorketa/barreiatzea eragin dezaketen edozein aktibitate, non haizearen abiaduraren heina 10 km/h baino txikiagoa den (bektore banatzailea). Era honetan, obraren zuzendaritzak, aktibitate hauen eguneroko planifikazioan aurreikuspen meteorologikoa faktore bat gehiago bezala erantsi beharko luke. Arau orokor bezala, aipatu aktibitate hauek ezegonkor handiko egunetan egitea ekidindo da.
- Beste ohitura egoki bat, normalean hautsaren sakabanaketa ekiditeko erabiltzen dena batez ere zama-lanak egiterako orduan, materialen aurre-ureztatze arin bat da, beti ere likidoren baten isurketa garrantzitsu bat sortu gabe. Kamioiek estaldura egokiez edo beste edozein babes sistemarekin ibliko dira lan-eremuan zehar.
- Ibilgailuen eta makineria pisutsuaren isurketek buruz, hauek murriztuak izan daitezke mantenu egoki bat eginez eta, ahal den neurrian, material berrien edo egin berrien erabileraz. Aspektu hau empresa eraikitzaileak kontratatzerako orduan irizpide gehigarri bezala erabil daiteke.
- Ekintzak hauek beharrezkoak diren guneetara murriztuko dira.

11.2 ZARATAREN MINIMIZAZIOA

Eraikuntza fasean zaratak sorturiko eragozpenak gutxiarazteko gida-lerro orokorrak bezala, makinaria guztiaren badaezpadako mekanikaren berrikusketak gehiegizko zarata ekidin dezake, egoera txarrean dauden piezak identifikatuz.

Aldi berean, lanen guneko trafikoaren fluxua ahalik eta gehien handitu behar da, ibilgailuen abiadura gutxituz eta sarrera eta irteerak behar bezala kontrolatuz.

Kasu bakoitzean neurriak hartzeko beharra aztertuko da, adibidez zarata gutxi sortzen duten konpresore eta zulagailuak erabiltzeko, motoreen isilgailuei aldizkako berrikusketak eginez, eta tolba nahiz bolketeen kaxaen estaldurak elastikoak eginez.

Zentzu honetan, soinu-hesi perimetralak jartzea ere konponbide egokia izan daiteke zarata gogaikarriak ekiditeko, eta unitate gogaikarrien funtzionamendua ahalik eta gehien gutxitzeko

(makineria pisutsua eta maila akustikoa igotzea suposatzen duen beste edozein ibilgailu edo ekipo), eguneko orduetan beraien erabilera murriztuz.

11.3 ERAGINDAKO AZALEREN ZAHARBERRITZEA

Proiektuko edozein ekintzak eraginda aldaketak izan dituen edozein gainazal behar bezala zaharberritua izango da (Todas aquellas superficies que hayan sido alteradas por cualquier acción de proyecto (sarbideen eraikuntza, zangen irekitzea, construcción de accesos, apertura de zanja, lehengaien pilaketa, ...).

11.4 HONDAKINEN KUDEAKETA

Eraikuntza fasean sortuko diren hondakinak Eraikuntza eta Behera-botatze Hondakinen Kudeaketa Plan eta Azterketaren araberkudeatuko dira, eta hauek Otsailaren 1eko Eraikuntza eta Behera-botatze hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautuko duen 105/2008 Erreal-Dekretuaren arabera, eta Ekainaren 26ko Eraikuntza eta Behera-botatze hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautuko duen 112/2012 Dekretuaren arabera idatziko dira. por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

Eraikuntza lanetan sortutako hondakin guztiak kudeatzeko sistemak aplikatutko dira, momento guztietan indarrean dagoen araudia betetzeko helburuarekin, eta iraunkortasun kriterioak kontutan hartuz. Horretarako ahalik eta gehien berrerabili/birziklatu beharko dira lanen prozesuan erabilitako materialak.

Erregaien pilaketatik, makinen olioien aldaketatik, eta abarretatik datozen kontrolik gabeko efluentek ekidin beharko dira. Ibilgailuen eta makineriaren mantenua egiterakoan sortzen diren olioak baimendutako kudeatzaile batek kudeatu beharko ditu, beti ere araudiak esaten dueña jarraituz.

12 PLANAREN INGURUNE-JARRAIPENERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN DESKRIBAPENA

Ezarritako kontrolaren helburua, ondorengo Ingurune-Dokumentu Estrategikoan zehazturiko prebentziozko neurriak, neurri murriztaileak eta neurri zuzentzaileak modu eraginkor batean aplikatzea izango da.

Beraz, jarraipen bat egingo zaien ingurumen-aldagaiakondorengoak dira: ingurumen-praktika egokien eskuliburua, zarata, kaltetutako azalaren konponketa eta hondakinen kudeaketa.

Maila	Kontrolatu beharreko gaia	Baliabideak. Erantzukizunak	Metodologia. Maiztasuna	Kalitatezko objektuak eta limiteak
Orokorra	Obra gunea zehaztea	Zuzenbide Fakultatiboa	Obra hasi baino lehen	Ez lursailaren limitea gainditu
Orokorra	Taldee aukeraketa egokia eta erabili beharreko makineria	Zuzenbide Fakultatiboa	Etengabeko ikuskaleta bisuala, obra egin bitartean	Taldeen eta eragin urriko makineriaren erabilera (zarata, igorpenak etakontsumoak)
Lur azalera	Mantentze lanak egitea bereziki horretarako diren lekuetan	Zuzenbide Fakultatiboa	Etengabeko ikuskaleta bisuala, obra egin bitartean	Kutsagarrien lurrerako igorpen, isurketa edo iragazpenak ez gertatzea
Atmosfera	Hautsezko hodeiak ez sortzeko neurrien ezarpena	Zuzenbide Fakultatiboa	Etengabeko ikuskaleta bisuala, obra egin bitartean	Hautsezko hodeien gabezia
Lur azalera	Isurketak jasateko prestatuta ez dauden lekuetan hauek ekiditeko neurriak ezartzea	Zuzenbide Fakultatiboa	Etengabeko ikuskaleta bisuala, obra egin bitartean	Kutsagarrien lurrerako igorpen, isurketa edo iragazpenak ez gertatzea
Zarata	Zarata eta hoenk sortzen dituen trabak ekiditeko neurriak ezartzea	Zuzenbide Fakultatiboa	Bizilagunen etengabeko protestak obra egin bitartean	Kexen gabezia

Maila	Kontrolatu beharreko gaia	Baliabideak. Erantzukizunak	Metodologia. Maiztasuna	Kalitatezko objektuak eta limiteak
Hondakinen eta baliabideen kudeaketa	Honakinen Kudeaketaren – Azterketa existitza (HKA) eta baita dagokion Plana (HKP) ere	Zuzenbide Fakultatiboa	Obra hasi baino lehen dokumentazioa baieztatzea	Dokumentazioaren existentzia
Hondakinen eta baliabideen kudeaketa	Hondakinen Kudeaketaren – Azterketaren eta Planaren arabera hondakinen kudeaketa	Zuzenbide Fakultatiboa	Obra irauten duen bitartean dokumentazioa baieztatzea	Onartutako Hondakinen Kudeaketaren – Azterketan eta Planean jartzen dueña betetzea
Orokorra	Langileei material eta sustantzia kutsagarrien erabileraren ingurukoko araudiei eta gomendioei buruz informatzea	Zuzenbide Fakultatiboa	Obra hasi baino lehenago, langileei beharrezko prestaketa ematea	Langileen osasunarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten istripu eta gorabeherak ekiditea

Nerea Zapirain

Ingeniaria

Idom Consulting, Engineering, Architecture

II ERANSKINA. HIRI-PARTAIDETZA PROGRAMA



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA DONOSTIAN

ONDARRETAko ERTZAINTZAren KOMISALDEGIaren lursaila

HIRITARREN PARTE-HARTZE POGRAMA

EUSKO JAURLARITZA

AURKIBIDEA

Edukia

1	SARRERA.....	4
2	HIRITARREN PARTE-HARTZERAKO EKINTZAK	4

1 SARRERA

Ondorengo Hiritarren Parte-Hartze Programa 2/2006 Lur eta Hirigintza Legearen 84. artikulua dionaren arabera idazten da, non hiritarrei nahiz elkartzeko erakundeei Ondarretako (Donostia) Ertzaintzaren Komisaldegia aurkitzen den lursailaren Hiri-Antolamenduako Plan Berezia aurrera eramateko prozesuan parte-hartzeko aukera emateko helburu eta ekintzak ezarriko diren.

2 HIRITARREN PARTE-HARTZERAKO EKINTZAK

Gutxienez 20 egunetako informazio publikoko epearen tramiteaz gain (2/2006 Legearen 95. artikulua arabera), parte-hartzeari dagozkion helburuak lortzeko ondorengo ekintza osagarriak proposatzen dira:

- Hiriko Erakundearen Erregistroan jasota dauden auzoko erakunde desberdinei (Antiguo esparruan aurkitzen direnei, alegia) Plan Bereziaren hasierako onarpena komunikatuko zaie.
- Plan Bereziaren hasierako onarpena eta behin-betiko onarpena Donostiako hiriaren web orriaren berrien sailean argitaratuko da.
- Informazio publikoko epean zehar, Donostiako hiriko web orrian hasierako onarpena jaso duten dokumentuak deskargatu ahal izateko link bat jartzea proposatzen da (pdf formatuan).
- Plan Berezia behin-betiko onartu ondoren, Donostiako hiriko web orrian planaren dokumentuetara eramango gaituen link bat ezarriko da (pdf formatuan).
- Planaren talde idazleak osatuko duen alegazioen erantzun-txostenaren ekintza osagarri bezala, alegazio bakoitzari banakako erantzun bate matea proposatzen da. Banakako erantzun bakoitza emateko aurrez-prestaturiko oinarri bera erabiliko da, eta era honetan alegazioa jarri duen bakoitzari erantzuna era errazago batean komunikatuko zaio.

III ERANSKINA. GENEROAREN ARABERAKO ERAGIN AURRE TXOSTENA



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA DONOSTIAN

ONDARRETAko ERTZAINZAren KOMISALDEGIaren lursaila

GENEROAREN ARABERAKO ERAGIN AURRE TXOSTENA

AURKIBIDEA

Edukia

1	SARRERA	3
2	ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-ESPARRUKO EGINTZA-PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA	3
3	Generoaren araberako eraginaren aurre ebaluazioa	4
4	EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATU ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO NEURRIAK (3)	5

1 SARRERA

Otsailaren 18-ko 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunerakoak, bere 18.1 artikuluan euskal botere publiko guztiak behartzen ditu “modu aktibo batean emakume eta gizonen berdintasuna kontutan izan beharko dute edozein araudi, plan, programa nahiz edozein politika publiko aurrera eramateko gailuak idazterako edo aplikatzerako orduan”. 18.1 artikulua honek Europar Batasuneko estatu kideen emakume eta gizonen arteko transbertsalitate-printzipioari erantzuten dio.

Abuztuaren 21-eko 40/2012 ebazpenak, “Generoaren arabera eraginaren aurre-azterketa aurrera eramateko jarraibideak, eta desberdintasunak ekiditeko eta emakume eta gizonen berdintasuna berdintasuna sustatzeko neurrien txertaketa, baita azterketa hau derrigorrezkoa ez den arau eta ekintza administratibotan ere” jaso zituen, genero eragina lantzen den txostenentzako kriterio multzo bat ezarri.

2 ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-ESPARRUKO EGINTZA-PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENA

1.- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren izena adieraztea:

Donostiako Ondarretako Ertzain Komisaldegirako lursailaren Hirigintza Plan Berezia.

2.- Zer sailek eta zuzendaritzak sustatzen duten adieraztea:

Donostiako Udalaren Hirigintza eta Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun arloak.

3.- Baldin badaude, proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten beste arauak, planak eta abar adieraztea:

Donostiako HAPO (Hiri Antolamenduko Plan Orokorra)

PGOU de Donostia – San Sebastián

4.- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak azaltzea:

Gaur egun lursailari emandako eraikigarritasunaren handipena, eraikinaren altuera handitzeko helburuarekin.

Planak bolumenen ordenazioak ezartzen ditu ere, eraikinaren lerrokatzea eta lurzoru mailak zehatz.

Eraikigarritasunaren eta bolumenaren handipena, eraikinak bere bulegoen, aldagelen eta arreta publikoaren gela hedapenerako beharrak asetzea du helburu, bereziki genero-indarkeriari erlazonatutako kasuentzako; horrez gain, eraikin beraren zahartzeari lotutako erreforma lanak betetzea. Hala ere, azpimarratu behar da Plan Bereziak ez dituela jardura horien hedapenak baldintzatzen.

5.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko helburuak azaltzea:

Planaren helburu nagusia eraikinaren erregulazioa da, beraz ez dauka emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu bereziak.

3 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRE EBALUAZIOA

6.– Aurreikusten al da emakumeek eta gizonek etorkizuneko arauaren edo administrazio-egintzaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan izango duten presentzia lagungarria izango dela sektorean desberdintasunak gutxitzeko? (2.a)

Bai, emakumeen eta gizonen presentzia espero da, Plan Bereziaren emaitza Ertzaintzaren komisaldegaren espazio berriak direlako.

Ekintza zehatz moduan, genero indarkeria kasuen arreta espazio berrien gaitzea da.

7.– Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak desberdintasunak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituela baliabideak eskuratzeari dagokionez? (2.b)

Eragin positiboa espero da, emakumeak genero indarkeriaren kasuak tratatzeko instalakuntza hobeagoak izango dutelako.

8.– Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izatea edo, behintzat, ordezkartza hori esparruan duten presentziaren maila berekoa izatea? (2.c)

Planak ez du pertsonen errepresentazioa erregulatzen (ez bisitarirena ezta bertan lan egoten duten pertsonen ere), beraz arlo onetan ez da inolako eraginik aurre ikusten.

9.– Aurreikusten al da etorkizuneko arauan edo administrazio-egintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumeei eta gizonei egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gainditzeko edo aldatzeko?(2.d)

Arlo onetan ez da inolako eraginik aurreikusten.

10.– Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea? (2.e)

Zentzu horretan, eragin positiboa espero da, poliziaren hedapenaren zati bat genero indarkeriaren biktimak zaintzeko gune berriak eskaintzea aurreikusita dagoelako.

4 EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EZABATU ETA BERDINTASUNA BULTZATZEKO NEURRIAK (3)

Jaso al da arau edo administrazio-egintzarako proiektuaren testuan neurriren bat...(3.a)		Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta haien deskribapena.
... genero-ikuspuntua kontuan hartzea sustatzeko? Bai ☒ Ez ☐	☐ Emakumeen eta gizonen egoera desberdina hobeto ezagututa	
	☐ Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio, helburu gisa edo adierazpen nahiz azalpen moduan jasota	
	☐ Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginda edo sustatuta	
	☐ Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatuta	
	☐ Berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-jardueretan eta abarretan	
	☒ Beste batzuk; zehaztu:	Plan Bereziaren helburuan, prebisio bat aurkezten da, dena den, ez da loteslea Hirigintza Arandiarerenengan.
emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko? Bai ☐ Ez ☒	☐ Hautatzeko epaimahaietan	
	☐ Sariak banatzeko epaimahaietan	
	☐ Kontsulta-organoetan	
	☐ Zuzendaritza-organoetan	
	☐ Beste batzuk; zehaztu:	
... ekintza positibokoa? Bai ☒ Ez ☐	☒ Emakumeentzat	Plan bereziaren helburuan, indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako bereziki ezarriko diren espazioak aipatzen da.
	☐ Gizonek berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzeko	
	☐ Beste batzuk; zehaztu:	
... itxuraz neutroa dena, baina	☒ Indarkeriaren biktimentzat	Plan bereziaren helburuan,

aurreikusteko moduko genero-eragin positiboa izan dezakeena? Bai ☒ Ez ☐		genero indarkeriaren kasuei aurre egiteko espazio berriak sortzea da.
	☐ Guraso bakarreko familientzat	
	☐ Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat	
	☐ Beste batzuk; zehaztu:	
... diskriminazio asko jasaten dituzten emakumeen desberdintasunak gutxitzeko? Bai ☐ Ez ☒	☐ Adinagatik	
	☐ Gizarte-mailagatik	
	☐ Sexu-aukeragatik	
	☐ Minusbaliotasunagatik	
	☐ Etnia eta/edo arrazagatik	
	☐ Nazio-jatorriagatik	
	☐ Beste batzuk; zehaztu	
... debekuzkoa edo zehapenezkoa? Bai ☐ Ez ☒	☐ Sexua dela eta diskriminatzeagatik	
	☐ Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	
	☐ Beste batzuk; zehaztu:	

Arau edo administrazio-egintzarako proiektuaren edukia alde batera utzita, aurreikusten al da neurriren bat hartzea... (3.b)		Deskribapena
.....berdintasunerako helburuen eta neurrien eraginkortasuna osatzeko edo areagotzeko? Bai ☐ Ez ☒	☐ Zabalkundea indartzeko ekintzak	
	☐ Jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak	
	☐ Estatistikak egokitzea eta ikerketa espezifikokoak egitea	
	☐ Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak	
	☐ Arauak, planak edo programak egokitzea edo onartzea	
	☐ Berdintasunerako planak egitea	
	☐ Egiturak edo zerbitzuak sortzea	
	☐ Egiturak edo zerbitzuak sortzea	

Txostenaren data: 2019. eko ekainak 12
Txostena egin duen pertsonaren sinadura:



Fco. De Borja López Roca
Hirigintza Arkitektoa